



# Hondarretik sortutako izakia

Yolanda Arrieta idazleak eta Leire Urbeltz ilustratzaileak 'Amarunen alamandrea' izeneko albuma aurkeztu dute

**Miren Korta**



**Z**er naizen badakit. Nor haizen? Zuk esan!». Yolanda Arrieta idazleak eta Leire Urbeltz ilustratzaileak ondo pasaraztea dute xede, beste ezeren gainetik. *Amarunen alamandrea*-ren egileak dira, Gero argitaletxeak orain gutxi kaleratu duen liburuarenak. Biak. «Lan bakarra, bi sortzaile», nabarmendu dute behin eta berriz. Irudia eta testua. Letrak eta marrazkiak.

Arrietak eta Urbeltzek Markina-Xemeingo (Bizkaia) Bego-Benta eskolako eta Bera-

Kruz ikastolako Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako haurrak deitu dituzte. «Ohikoena da liburuaren aurkezpenak kazetarienurrean egitea, baina guk nahiago dugu zuekin zuzeneko harremana izan», azaldu die idazleak bertaratu direnei.

Hirurogei bat ikasle bildu dira, herriko udaletxe zaharraren atarian. Guztia prest dago eta ikuski-zuna hastera doa. Txokoa txukundu egin dute eta agertoki itxura dauka orain, telebistako kamera eta guzti. Eraldaketak ikusmin handia sortu du ikasleen artean. Arrietak aurreratu die

laster ezustekoan hartuko dutela. Oraindik ez dakite, baina izaki misteriotsu bat ezagutuko dute: Alamandrea.

Urbeltzen irudimenetik sortutako izakia da Alamandrea. EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean ikasten ari zela bururatu zitzaien ilustratzaileari «kale gorrian eta bakarrik bizi den pertsonaia baten istorioa» marraztea. Printzeprintzesez gain, bada garaia beste pertsonaia mota bat ipuinetaiko protagonista bihurtzeko, Urbeltzen arabera.

Agertokian lau neskato eseri